

## PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure produktuaren izena —ZTM—, ingelesez eta euskaraz egindako izen-joku batetik dator. Ingelesezko “STEAM” hitzaren erroa du, eta gailuaren funtzionamendua erlazionatuta dago. Izan ere, “Z” euskerazko “EZ” hitzatik dator. Beraz, “EZ STEAM” esan nahi du gure proiektuaren izena. Jarraian azalduko dugu hobeto.

**EZ + STEAM = EZ STEAM = ZTEAM = ZTM**

ZTM zerbitzu bat da, ispiluak instalatzen eta berritzen dituen. Ispilua instalatzeaz aparte, deslurrungarri automatiko bat (halaber, lurruna kenduko duen objektua) instalatzen dugu. Deslurrungarriak luxuzko diseinua du, eta, haren funtzioa ispiluko lurruna guztiz desagerraraztea da, gure aurpegia ondo ikusi ahal izateko.

Dutxatzean sortzen den lurruna aire beroaren bidez desagertarazten du, eta honela ispilua argi geratzen da, hain preziatua den denbora aurreztuz. Automatikoa da, hezetasuna detektatzen duenean abiarazten delako, eta produktuaren alderdi guztiak pertsonalizatu daitezke APP baten bidez.

Zerbitzuarekin bat mantenua dator, hilabetero ordaindu beharko dena.



